



## **EHUk aldi bereko itzulpen-zerbitzua dauka: erabil ezazu!**

Hala egiten baduzu...

- ▶ Berba egiterakoan **mikrofonoa piztu beti**, zabiltzan hizkuntzan zabiltzala. Interpreteek bileran esandako guztia entzun behar dute.
- ▶ Itzulpena entzuteko, **jantzi entzungailuak** eta dagokion kanala markatu.
- ▶ **Arren, ez egin berba aldi berean.**
- ▶ **Ez egin autoitzulpenik**: itzultzaileak itzuliko ditu zure hitzak esaten dituzun aldi berean.
- ▶ Interpreteek bilerako kideek daukaten **dokumentazio berbera** izan behar dute. Bileran bertan dokumentu berririk banatuz gero, eman kopia bat interpreteari.
- ▶ **Gardenkirik edo proiektziorik** erabiliz gero, interpreteak ondo ikusteko moduko lekuan egin. Ezin bada, eman interpreteari kopia bat paperean.
- ▶ Dokumenturen bat ozen **irakurri** gura baduzu, emaiozu kopia bat aldeztetik interpreteari.
- ▶ **Bileraren antolamenduari buruzko azalpenak** (etenak, atzerapenak, bilera amaitutzat jotzeko erabakia...) **mikrofonoz** eman behar dira, interpreteak entzuteko.
- ▶ Amatatu **eskuko telefonoa** edo mikrofonetik ahalik eta gehien urrundu: interferentziak sor ditzake soinu ekipoarekin.
- ▶ Berba egiten **amaitutakoan, itzali mikrofonoa.**
- ▶ **Interpreteak ez dira soinu-teknikariak.** Aldi bereko itzulpenerako tresnerian sortzen diren arazoak arlo horretako langileek konpondu behar dituzte.

Eskerrik asko laguntzeagatik!  
Hizkuntza Zerbitzuak